Vi etorrera señalazendire E.S. bat erredimizera etorribardana eta ori cumplitu zen arcean corpuza (Cat. R. p. 83). Bi juicio celebratucodire gure taco bat. (ibid). Ezta diferenciaric arquiteco bata bescingandic bat illcandanean ematenzaiyon sentencia, izango da juicio universalala celebratuzendanean cergatic bada celebratu bearda juicio universalala (ibid. y Mazo p. 106)<sup>430</sup>.

Noiz izango da eguna ura? Eta orduan viaugu gucioc erresucitatu?...

id. 30 - 06

Jac. bacarric barcatu dehasque becatuac; ara norla bat libratua izateco zorra pagacetic beardu izan consentimentue eta iza zor dion personarena eta eztezaque onen izenean bescebatec eman iza, alaber... Galdeyen du orain doctrinac, cer erraneidu araguien erresurreccioac?

Cristauen esperanza gucia dago articulo-onetan; ezpadaquigu bier degula erresucitatu, igual da obra onac eguitea edo ez. Ez gara joaten Jen. aldera ezpada arren promesaren vitez, eta franco aldiz gure ertean icusicolireque falta gueyago ezpaliza eguiya-ori. Sociedade batean bat sarce(n da) eta bela galdeyendu cer ventajac, cer emaindirete sarcebaneiz sociedade orretan? Erratendu doctriñac araguien erresurreccioa... (C. 7. 2.) (Se prueba ibid. 3. 4.)<sup>440</sup>.

Mayo 6 - 06

Seguituz Trentoco Conc. eracustenduena araguien erresurrecc... erratendigu S. Pablo Apostoluen izaquin. Ara nola Adanen ill guñen gucioc, alaber J. Cequin. errusitatuco guera gucioc. Denoc bada erresucitatuoguera onac et gueiztoac igual, condicioa izeinde diferentia, bazuc ceruraco...

Denoc diyo erresucitatu beardegula guc baño lenago illcirenac, gure guibetic etorribiautenac eta azqueneco momentu juicioaeraño vicitu bearduana.

“Orain yugun corpuz”. Besce eguiyabat fedescoa eracustendigute izaoc: orain duren corpuzonequin berarequin erresucitatu coneiz, orain ditugun biguioquequin icusicodet: ala diyo Job Santuac et baita ere S. Pablo Apost. Erresurreccioa da ematera vicitza illic dagonari, da ecarcea lenago vicitza zuenari, eta arrazona garbiya da; cergatic artu beardu castigoa edo premiao corpuzarec berac artuzuenac gustoa edo pena munduan<sup>450</sup>.

Eztira errusitatuco corpuzac munduan izancituzten defectoquin diyo S. Agustiñec, Egunartan ezta faltatic icusico corpuzetan. Vicitubaciren bazuc guizentasun aundiyarequin, eztute artuco corpuz gucia, baicican consideratucodela excesua aterazendena guizonaren proporcionatic: contrara eritasunac edo zarreriyec consumizembadu corpuzac, erreparatucoda J.C. edo Jen. virtutez. Cergatic Jac. ez bacarric reformatu edo berritucodu corpuzac, baicican quenduden gucia munduco miseriaquin.

Corpuzeco parte guciac denac izañdire viurtuac, ichuturic yayozena..., ceren bere modubatean ezta cumplituco animaren deseyoa, izenic ain gogo aundicoa animarena icustea corpuzac enterua edo beardun bezela (ibid.)<sup>460</sup>.

Mayo 13 - 06

Cer erraneidu vicitze seculucoac?... Apostoluc (Ojea) diyo J.C. neizuten acabatu misteriuonequin Credoac: lenic yaquiteco erresucitatu ondoan etzela falta vicitza seculucoa besceiq, edo erresucitatu ondoan, guero iraunbearduela gure vicizac betico; gañera ecarcenguiñucelatic memoriara vesce munduco dicha ta felicidadea, acostumbrazeco obra onac eguitera ceruba conseguizeco moduan. Eliza A. S. ecarcendigu memoriara misteriyuori bescequin batean.

Bi egui eracustenyigu articulo (edo misteriyuonec) Vicitzau acabatzen zai-gunean etorricodela besce bicitza bat beti iraunbearduana: 2. onac...

Bi eguiya-oc ucatuac izetendire gende gaiztoen ertean, eta gaur gueyago besce demborateam baño yandezagun, erandezagun eta gozadezagun dezaquegun gucia, biyar ilcoguera eta eriotzarequin acabatucoda dena. Cerua ez-

tago besce munduan apezac dioten bezela, baicican munduonetan, eta cem-batenes gueyago gotzatzenden ceru obia; gure vicitza da animaleena beze-la<sup>470</sup>... Eta claro gueiztoac ori conseguzeco parazenyuzte arrazoñabazuc, baño eztutenac baliyo frutesabat. Ejemplobatequin icusicodegu obequi gueiztoen arrazoñac. Por ejemplo votacionetan vadaquicie yendea nola ibillidan; bazuc aldebatera, besciac bescera bacoachac bere gustoco candidatuarequin atraceagatic, eta bacocharen deseyoa izein de ateracea ez bacarric emen, baicican España gucien vere aldecoac ateracea.

V

Eta demagun vere deseyoac cumplizea, cer guertatucolizeque? Gobernu gucia erorcea, politica gucia cambiacea eta gauzac yarcea arren deseyoac diren bezela: bada erratendutenac eztela vicitzaric ori neidute yende guciac erratea eztela vesce vicitzaric, eta yende guciec erratendutenean ego gueiyenac erratendutenean eztela vesce vicitzaric, orduen cambiatu, mudatucodu Jac. opinionona eta erraindu yaqueta gende gucioc empeñatzendire erratea besce bicitzaric (eztela) conformatzennaiz eta cumplitudeitela oquen deseyoa, eta orregatic gente gueiztoen er-tean arquitzenda aimpeñu izugarriya ontara allegazeco<sup>480</sup>.

Edoceiñec icustendu eztezaquela orrelacoric eguin Jac. ceren Ja. izeteco Ja. ezteique mudatu ta cambiatu eta deseguincolizeque Jen. izete gucia, eta cumplitucobalizeque Jen. etsaiyen deseyoa, orduen joango guñeque denoc infernura eta alabatucoguñeque erremedioric gabe Jen. justicia.

Ezta erremedioriz ezpada confesatu vicitza seculecoan, fedezco eguiya da eta gure arrazoñac ongui comprendizendu.

Ja. da gure principiyua ta fiña; creatu gueitu vere anz ta idurira, creatu gueitu ezaguzeco Ja. gure Bondadea edo onguia bezela, ezaguzean servizeco eta guero gozaceco.

Ematenyigu gracia *Deus vult omnes homines ad agnitionem veritatis venire*<sup>490</sup>.

27 - 06

Cer da juicioa?... Auda etorri bear izugarriya denenzat, eriotzac deseguinic laguntasuna corpuz ta animarena, uciric heriyac eriotzarequin munduco lagun, senide, guraso ta ezagun guciac, presentatu bear du erremedioric gabe ceruco tribunalean. Ycusi-icenduda carcelan dagonari leizean sententia eriotzeera, an bertan illic gueracea. S. Pablo presentatuzutenean gentillen tribunaletan predicatzen zobelaco J.C. doctriña ta vere defensa eguitean apelazendu J.C. juicioco tribunalera eta presidentea icituric guerazenda, deadar eguitenduela. Erregue Baltasarrec icusi zobelaco escu Misterioscobat escribitzen letrabazuc ecin comprendiyu zeizquenac, escazendu socorrua auxilioa; erregue Sauli galcenzaiyo colorea eta sentidoric gabe gueratzenda icustearquin bacarric profeta Samuelen izela<sup>500</sup>. Cer guertatucoda gurequin... Orra zer cion ezagunabatec errancirena bein batez; cegoala explicatzen estudianteri eta icusi zuela piscuabat enredatzen, eta alciñeturic baicegoan estudioan sentitzenzuela reprehensiona ematea publicoan, baña guarcean ezuela parazen vearden atenciona, erranciola Ja. ezta au aurren lecua.

## Junio 3 - 06

Juicioco eguna izainde egun izugarriena gure zat et mundutar gucienzat... Juicioco sententia aituric animac yoainda cerura, infernura, purgatoriora edo limbora; ezta besce lecuric mundutarrendaco: infernua dago lurraren azpi azpiyen, purgatorioa arren gañean, limboa arren gañean, eta onen gañean Abrahen señoa eta besce lecu da cerua; eta era onetan daudela lecuoyec adicera ematendigu Escrit. Santuac: illzan Lazaro lllagatua, miseri aundiyan eta illondoan eramana izanzen Abrahan señoa, illzan Epulon deritzan guizon aberasbat eta eramana izan zen arren anime infernura: Lazaro joatenzen vicitzanean Epulonen echera eta jatencitun Epulonen mayetic erorcenciren ogui zatiac, chacurrequin batian<sup>510</sup>... Epulon arquitezencelaiq infernuan icusizun, an goiti, urruti Abrahan eta garrasi eguincion. Lazarori errateco egarri aundiyan arquitezencela... Nor yoatenda bada cerure? Jen. gracion egoten illcia asquida ceruan sarceco laster edo berandu: bela ceruan sarceco ceruan illcendanac, beardu iduqui pagaturic becatuac eguindacuac meresi izanduten pena: becatuec meresiduen pena pagazenda confesoreac ematenduanaren penitenciarequin: gañera oracione, baru ta limosnarequin eta besce edocein obran onaquin direla trabajuac, enfermedadeac, calamidadeac eta miseriec eramana pacienciaquin, eta azquenean indulgenciaquin: confesoreac señalatzendigun penitenciarequin barcatzenda becatuec meresiduen pena, baña ezta barcatzen generalqui pena guztia eta pagatubearda oracione, limosna etc.:<sup>520</sup> ezta barcatzen dena gañera cergatic ezta arcen becatu chiquiendaco damutasuna eta eztire confesatzen eta becatua den chiquiena izanic bearda damutu eta pagatu bierra da becatuorren pena munduonetan edo bescian: eguin dezagun contu batec errecibitu ondoan bere pecatuen barcacioa eta irabaciric indulgencia guciac arquitezendela ceru erdian sarceco eran; eta eguitendu falta den chiquiena impaciencia charbat illcembada ezta yoain cerure *nihil coinquinatum intrabit in regnum coelorum*. Gañera becatu chiqui asco eguitenditugu confesatu ondoan eta Jen. gracion arquitezencabaguera ere, becatu oyec meresiduten pena ezpadegu pagatzen erchizenzaigu ceruco videa, orregatic baruac, limosnac, trabaju, enfermedadeac, calamidade eta munduco miseriec artubeardire pacienciarequin gure becatuen satisfaccione taco. Ylzan bat Jen. gracion, cen santubat aundiya gendearen iduriyan, eta munduan izenduciyun arropac uquitucitun eribatec eta gueratuzan osasunarequin, yende guciac ustezuten ceruan zegoala eta ezun inorc ya erreguzen animaren zat eta egombierra izanduzun dembora franco purgatorioan falta chiquibatengatic<sup>530</sup>. Yndulgenciadirade obra gucietan obreerenac conseguizeco gure becatuen penaren barcamena: gaur indulgencia plenaria asco arquitezendir: eguiya da eztela erraz irabaztea, ceren indulgenciac escatzendun obra ona eguitean eguindezaquegu falta chiqui bat edo afecto chiquibat bear-eztana izandezaquegu lurreco gauzetaraco... (Vide Fuente mistica).

## Agosto 5 - 06

Non dago Ja.? galdeyendu doctriñac eta eranzuzendu lecu... Yduridu eztagoala bere lecuen galdepen edo pregunta ori cergatic lendavicico partearen explicacioan aterazenda eta gañera emen bigarren partean explicacean errezuarien bierra, errezuaren propiedadeac galdeyeen, iduridu diyot sobra dagoala pregunta ori, baña ezta orrelacoric: *Vigilate et orate ut non intretis in tent.* eta oreitucobaguineque Ja. taz, dagoala lecu gucietan, ezguineque ero-

rico becatuan. Ja. dagoala lecu gucietan fedezco eguiya da *Quo ibo a spiritu tuo, si ascendero... Nox sicut dies illuminabitur*<sup>540</sup>.

Eva erori cen becatuan ceren ezen oreizen orduan vere ondoan zegoala Ja. contrara berriz leizenda Escrit. S. ezela erori Susana deritzan emacomebat becatuan ceren zegoan Jen. ondoan. Profeta Natan deritzanac esacion. Davidi eguinzuela falta aundiya eguinzelaco becatua Jen. presencian. S. Felipe Neri ta S. Catalinac izanduzuten gracia ezaguzeco cer gende arquitzen ciren becatuan eta gracia eta au jaquiñic becatariyac eguitenzuten aleguiña ez encontrazeco Santuoyequin eta consejuac oquengandic errecibizeco, lenic confesatu eta ongui yarrizenciran. Lotsatzenciran hoc presentazera, ceren santuayengandic errecibituzotelaco reprensionembat, bada motivo ta arrazoña gueyago dago beldurtasuna izeteco Jen. daco... *Ommes nos manifestari oportet ante tribunal Christi...* Edocein lecuetara beguiratzendugulariq, consideradezagun an dagoala Ja. Badire imaginabazuc eguiñac aimbesecco industria edo habilidadequin ece beguiracembadegu imagiñara iduridu beguiyec daudela gure aldera veguira; ezquerretara beguiratzenbadegu igual<sup>550</sup>. Ezguiñeque lotsatucogucioc oraiñ etorricobalizeque ainguerubat eta errain balituzque gure becatu guciac? Ynfernua daudenac neyago luqueteque jucicioco egunean ez presentacea baña fede osoa, fede aundiya artubearda besenenac izein da gure fedea, arbolayen guisa ceñec ecarcendute ostoa, baña ez fruitua. Ja. badago suan edo urian? Jac. eztezaque padeciya, Ja. ezteique erre, busti etc., espiritu dalaco, eta Ja. espiritu izanic padeciycobaluque errainguiñuque ezgubela berequin atseguin ta contentu paregabeoac. Ej. Eguzquiaren diztarguiyac uquizendute sua, uquizendute loya, ura, alaber Ja. izenic espíritu garbiyera, ocupatzen dituc lecu guztiac munducoac, cerucoac, lurpecoac, denac eta ala ere ezta ciquinzen: emendic atera beardegun gaya da oreizea Ja. dagoala *Deus me videt*<sup>560</sup>...

## Sep. 2 - 06

Explicatuondoan zazpi peticioac dator azqueneco iza Amen. Ynder aundiya (6 de J.) du iza onec Trentoco C. doctriñac dionez. S. Jeronimorequin diyo doctriñac dela (edo erraneiduela izaorrec) selloa (bezela) Jaunaren oracioarena: badaquicie papera aunizec ongui escribituric egonda ere eztutela baliyo firma ta selloa ezpadu, ezta autoridederic, ezta inderric paperarrec, baña balembada letra charra ere... Direbada aundiyc fruituac oracioarenac, eta aundirena conseguizea escatudana. Mudutarrac yolaseguiteco bate besenen ondoan yarrizendire obequi comprendizeco bate besenen izac eta alaber diyo S. Criprianoc minzececo Jequin. arrimenzengara errezuereen vitez eta errezuaren acabarera aunditzenaigu esperanza eta conseguitu baguendu bezela erraten degu Amen. Osturic daudenac... (ibid)<sup>570</sup> Yza ori Amen franco aldiz ezen erratenzu(en) J.C. vere otoizetan eta S.S. aguindudio E.A.S. errezo guciaren acabarera eranzuteco amen: Amen bat icustenda ceñen explicacioa da diferentia besce Amen gandic eta amen ori da mezacoa errezacenduenean Sacerdotea(c) Aita gurea (ibid). Galdeyendute guero doctriña bazuc cergatic erratezu lenic Aita gurea ceruetan zaudena? Jri. vioza gorazeco eta escazeco humildade ta confianzarequiñ; besce modubatean galdeyendu gure doctriñac. Cer da otoiz eguitca? Errezua eguin bairdo lenago bearda prestaera eta nolacoa den persona ceñen alciñen presentatu beardegun artucoda *da* cuidado gueyago edo gutiago. Erreguearengana joan beardegun artucoda *da* cuidado gueyago pensatuberdegu cer erran beardaiyon<sup>580</sup>...

Sep. 30 - 06

Presentatzenduenac memoriabat importanci aundicoa erreguen aurrean, procuratzen du ongui despeitua izeteco recomendacea vere negocioa eta suplicatzendu palacioco gende aundirenei, erregueen lagun aundirenei ongui despachatua izan dedin arren memoriala. Aita gurearen errezua da memorialbat non escatu eta suplicatzendan gure negocio aundirenac, principalenac eta eguiya bada ere ongui errecibituac izan bia(u)tela gure escaerac ceren firma ta selloa memorialarena den Jen. Semearena, ala ere veldurra degu Jen. seme-onenzat maiz ofendiyudulaco eta memoriala-orretan falta bada cerbait, confianza edo beso gauzarembat presentatzen guera arren amaren aurrean. (Contin. Mazo)<sup>590</sup>.

## VI

Octubre 14 - 06

Norc erranzuen Salve... (Mazo). Alabanzac errezuonendaco dire aundiyac S. Bernardino, S. Bernardoc eta S. Buenaventurac paregabeco alabanzac dituzte errezuonendaco; eta S. Ligorioc vere liburu escriptuan M.S. alabanzetan da Salvearen explicaciona. Diyo S. Ligorioc edocein delaiq icenic becatari aundirena ere non ta devocioarequin errezacenditu Salveco izayec. Ea bada gure abogada izulizazu gure gana zure begui misericordioso oyec bigunzen dela M.S. viyotza eta urriquitzendela errezuori eguitendion gendeaz. M.S. poderioa sarcenda infernu berean diyo S. Antoninoc, ez precisamente libracean animac, baicic ez errecibitzen aimbeste pena nola izein zen ezpalu devocionic izan M. Si<sup>600</sup>. Eguiten du M.S. biurtu nei ezpadu pecatariyac J. vicitza icetea laburra ez castigatua izeteco aimbescce infernuan. S. Brigidaren errevelacionetan orrela leizenda. Ara nola munduonetan Juezac señalatzendute castigo diferentea eta baita ere eriotze distintoa, segun ta nola diran faltac, alaber infernuan arquitzendire castigo diferenteac bata bescien becatari ta becatuengatic: Pena ta dolorea da aundiagocoa infernuan cembates vicitza luceago zen munduonetan, eta orregatic diabruac neicoluque becatarien vicitza luceagocoa izetea, castigatua izeteco gueyago infernuan; eta orregatic M.S. vere gracia ta misericordiaquin laburzendu verezat errezuac eguiten dituzten peccatarien vicitza infernuco penac ez izeteco ain gogorrac nola desegazen du deabruac: Gueyago ezteique erran M.S. misericordiaren gañean<sup>610</sup>: gure devociona beardu izan siñescoa, ez vicitu becatuan ta honratzen M.S. ceren infernuan ezta salvacionic; siñesco erreacuac eguindizagun gure salvacionaco. Certaco? M.S. favoreac etc. Mesedeac eta favoreac aundiyac conseguitu ditu E.A.S. Salvearen errezuquin eta vere mendecuac cein gueraç guc neidu errezuori maiz eguitea. Favore ta mesedeac leitzendiranac liburueta(n) bearda lembicico gradua garbitasunean, cein den becatu mortaliq gabe egotea; au da gauza precisocoa derechua izeteco conseguizeco privilegioac. Leizenda eguindituala M.S. gracia aundiyac becatariyaquin, baña ori da guri eracusteco cembateco valimentua duen M.S. errezuac, baña realqui becataribatequin eguitendua milla gauza miragarri eguitenditu becatari ez diranaqui; eta bi aldiz ill bear baquiñaque ez guñuque predicazalearen erran bearric cein aundiya den M.S. poderioa. Nor da M.S.?<sup>620</sup>



Octubre 21 - 06

Nor da M.S. (Mazo) Certaco dago aldarean? Ymagiñetan consideratudizque bi gauza: lenic materiale ceñequin eguitendan imagiña, dela papera, dela zure, dela arriya; biguerna consideratu deique papera orrec representatzen-duena; p. e. cuadro bat erreguearena, pøperure da erreguea? ez, papera ure da papera eta valiocodu auniz edo guti segun cer estimacione duen gendeen aurrean; cer representazendu? cer ecarcendu nere memoriara? erreguearen edadea, erreguearen habilidadea? Valiyo du erreguearen... Retratoac igual<sup>630</sup>...

Pintazendu profeta Danielec Ja. edadesco guizonabat yarriric tronobatean ta arren aurrean liburubazuc zabalduric. Du Jac. corpuzaric? Ez da Espiritua? cergatic bada eguitendu ori profetac? representaceco, ecarceco gure memoriara Jen. eternidadea eta Jen. sabiduria icustenyubenac munduco gende gucien pensamentu, itz eta obra guztiac.

Oraindic gueyago badire lecubazuc non eguitendiren milagruac eta ez besce imaginabazuen aurean p. e. Lourdesen, representaciona imaginarena Lourdescoa eta emengoa da igual, cergatic bada diferenciaori? Cergatic neiduen Jac. an honratua izetea M.S. Reliquiac dire partebazuc corpuzarenac eta devocione gueyago sentizenda viotzean venerazean honrazean corpuza animabatena ceñ arquitzendan ceruan<sup>640</sup>.

## VII

Jauna emanzadazu zure lagunza nic nere becatu, guciac ezaguceco, dolorea formaceco et proposito firmia iduquiceco, confesio ona eguin nainuque. Eta zuc M.S. nere Ama erdechizaidazu zure Seme Jesus vitarteco dala gracia confesio ona eguiteco.

1. Goiceco eta arraseco oracioac inyuten egunero E.A.S. eracustenyu eguiya guciac sinistazen yuten fede osoarequin.

2. Ytz gaistoac erranyuten, edo birau edo blasfemiac Jen. edo Sanduen contra eta cembat aldiz<sup>650</sup>.

3. Mezara etorri naicen yayetan ta igandetan. Egonnaizen pentsacen Jesu-sen vicitza ta pasio ta eriotzian; edo contrara distraiyuric aldebera edo bestera beguiratzen edo enredatzen edo lotan.

4. Amatu, errespetatu ta obedecitzen yuten gurasoac. Begui charra paratzen duten ayen erranari. Coleraci yuten nere errespetuaren faltagatic.

5. Gueizqueric eguindioten nere lagun projimuari, escuaquin, itzaquin edo deseyoz gorrotuaquin.

6. Pensamentu gaiztoari lecu emandioten, gustoa artuduten gaiztoqueriya oyetan pentsatzen. Ytz zacarrac, lizuñac aiyu ta erranyuten. Gauza gaiztoac inyuten bacardadean edo besce norbaitequin ta cembat aldiz<sup>660</sup>.

7. Ebassiduten gauzarembat echetic edo besce lecubatetic edo dannurembat eguindioten lagun urcoari edo projimuari.

8. Guezurrec erranyuten, edo gauza estaliyac aguertuyuten ta pensatuduten gaizqui norbaitendaco motivo aundiric gabe.

Dolorea. Nere becatuaquin ofendiyo dut nere Ja. eta ofendicean galdu dut cerua, meresi dut infernua et ill dut nere J.C. Je. gurucean.

1. Nere becatuagatic galdu dut cerua. Oh galdutasun aundiya! Ezpanitu eguin becatuac, ceruan egombierra nizen contentasan ta gustoz beteric<sup>670</sup>. Ezpanitu becatuac eguin ceruan egombierra nizan ecin contal urte, eternidade

gucian. Ezpanitu becatuac eguin ceruan egombierra nitzen batre lanic eguin-gabe, heritasunic gabe, iñoren beldurric gabe. Ezpanitu becatuoyec eguin nere corpuzac botacozen ceruan, eguzquiyac baño zazpi aldiz edertasun gueyago.

Nere beguiac atseguin contentuagatic eciren locartuco, nere belarriyec eta sendido guciac denac bat batean gozaten. Pasatucodire urteac ceruan milloica instantebat bezela.

Munduan galcembadire ondasunac, osasuna, importanci aundico nagociobat, pena aundiya eta negarrac iyenyute gendeac. Cer dire munduco ondasunac, osasuna eta negocio aundirenac comparaturic ceruco ondasunaquin? Oh becatu madaricatu! ez nuzu gueyago engañatuco! Damu det Jauna zu ofenditua. Ucico dut becatua zure ondoan vicitceagatic betiraundi gucian. Nic neidet cerura yoan; eceyut gueyago ofendiyuco nere becatuequin<sup>680</sup>.

2. Nere becatuagatic meresi dut infernue. Meresi dut betico su ta garren ertean egotea. Ynfernua da beti sutan dagon labe icaragarriya, beñere itzalico ez dana. Ynfernua da puzubat suarena iriquiten dagoana ur beroa bezela; puzartan condenatuac sarturic egoindire, arrayac urian bezela, betiraundi gucian an denac garrasis toqui izugarriartan.

An aitucoda batec erratenduela "Ni condenatu nizan blasfemia batengatic". Ni, diyo bestebatec, condenatu nizan ez obediceagatic. Beste batec "Ni condenatu nizan becatu ichusiagatic" Ni lagun projimua gorrotaceagatic. "Ni condenatu nizan becatu ichusiagatic" Ni lagun projimua gorrotaceagatic. "Ni condenatu nizan confesio gaiztoac eguiteagatic, lotsaz ucitaco becatuagatic". Ay nere! erraindute bescebazuc negarres. "Nic baindo becatu gueyago eguincituztenac salvatu ciran biurtucirelaco Jaungoicoagana, ni berriz emen betico. Atozte, erraindute, oyenac nere gañera quentzera vicitza, atoz eriotza eta eriotzac alde eguingodu, ozcatucodute beren corpuzac, urcatu neico dute burua, baño alperric<sup>690</sup>.

Orduan asicodire condenatuac guraso ta seniden contra mitzaten. Madaricatuodute Jaungo. M.S. Aingueruac ta Cerutar guciac. Oh miseriya condenatuena! Nic meresidut infernua et Jaungoicoaren misericordia neurri gabecoac libratunau pena izugarriyatatic. Milla esquer ematenyizut Jauna. Uci-codut becatua, uci-coditut lagun gaiztoac, nic libratuneidet pena aundi aye-tatic; gaurtic uci-codet becatua; uci-coditut lagun gaiztoac eta becatu-raco bide guztiac, neyago ill zu ofendiyu baño lenago<sup>700</sup>.

3. Nere becatuequin ill dut nere J.C.J. gurucian. Neurri gabecoa da Jauna zure misericordia. Erorizan Adan becatuan, galduzuan Jaunaren gracia ez bacarric bere zat baitaere mundu guztiarenzat eta aimbesteraño urriquituzan gutaz non etorrizen arren seme bacarra mundura gu salvaceo.

Nere amarez pasatucituan munduan Jesusec tormentu ta pena aundiyc; nere amarez pasatu cituan munduan gosse ta egarri, neque ta oñace izugarriac<sup>710</sup>; nere gatic izenduzen azotes urratua, nere gatic sartucioten buruban arranzasco coroyabat, nere gatic ermanzuen bere bizcar gañean gurutcia calvarioco mendira, neregatic izan cen josia illzaquin gurucean, nere gatic isurizuen odol gucia gurucian, nere gatic ill zan tormentu ta neque pensatu ezteiquen ertean. Oh Jauna! aundiya da zure amorea nere zat. Eztire nere lagunac, ez senideac ez eta gurasoac ere nere amarez aimbesteco neque ta trabajuac artucoyutenac, nere gatic vicitza aiñ pena garrazera eta eriotza aiñ gogorra pasatucodutenac<sup>720</sup>. Zubacarra maitatuco zeitu alciñe nere viotzac. Norc contatu, Jauna, zure azoteac, zuri eguindaco burlac, desprecioac eta injuriac? Videoyetatic, Jauna, pasatu bierra ciñen neri adirazteco becatuaren maldadea eta nera gueizqui eguiñac.

Damu det, Jauna, siñesqui su ofendidua; uicodet becatua ez ceruco edertasunayec gozaceagatic, ez infernuco penetatic libreceagatic, baicic zure amorioagatic, nere gatic aimbesteco nequeac eta eriotza gogorragatic, nere becatuequin ez berriceco zure passio gogorra: Damu det berriz ere, Jauna, eta ematendizut itza ezeyutela gueyago ofendiyuco, eta neyago det mill aldiz vicitza gabe gueratu ece ofendiyu zure magestadea<sup>730</sup>.



## VOCABULARIO

- ALABER. *Alaber eguinbeardire obra onac* (282); *alaber guertatzen zen besce profetaquin* (323); *alaber consideratuzun* (402).
- ALCIÑE. *Zu bacarra maitatuco zeituz alciñe nere viotzac* (721).
- ALCIÑE(TU). *alciñezenda usu arrazona instruccionequin* (111); *eta alciñeturic baicegoan estudioan* (502).
- ALEIÑE. Ahalegin. *andic aleiñe eguitenzun* (40).
- ARQUI(TU). *Yaiquizeganean arquizendire bi aingueru* (4).
- ARRIMEN(DU). Ondora(tu). *minzececo Jequin. Arrimenzengara errezuere videx* (568).
- ASTEN(DU). *diabrua irris astendu* (7).
- BAINDO. Baino. *lenago baindo obequiago* (41); *guizona creatu izan baindo lenago* (82).
- BAIN. Behin. *erran izendut bain baño gueyagoetan* (127); *exza bainere cambiatu* (176).
- BATRERE. Batere. *misterio guciac batrere dudaric gabe* (290); *batrere quejatu gabe* (369).
- BECOQUI. *Ongui ciñatu becoquian* (2).
- BEDIQUETUE. *ur bediquetue arcean* (13).
- BELA. Berehala. *bela pensazen* (113); *eta bela galdeyendu* (339).
- BENIZPEN. Behintzat. *guazera joatean benizpen* (46).
- Bescen besce. Beste hainbeste. *J.C. demboran bescen besce guertatzen zen* (323).
- BETIRAUNDI. Eternitate. *ucico dut becatua zure ondoan vicitzeagatic betiraundi guzian* (679); *puzuartan condenatuac sarturic egoindire, arraya urian bezela, betiraundi gucian* (685).
- BIERRA. Beharra. *pagatu bierra da bekatuorren pena* (523); *egonbierra izanduzun dembora franco purgatorioan* (828); *afecto chiquibat bear extena izandezaquegu* (834).
- CIÑA(TU). *Ongui ciñatu becoquian* (2); *beardegu ciñatu* (5).
- COLERA(TU). *Colerazi yuten nere errespetuaren faltagatic* (656).
- CORPUZA. *diabruayec extute corpuzaric* (87).
- Dechasque. Ditzake. *Jac. bacarric barcatu dechasque becatuac* (431).
- DESEGA(TU). *infernuco penac ez izeteco ain gogorrac nola desegazen dut deabruac* (610).
- DIABRU. *diabrua content egoinda* (6).
- DIRI(TU). Dei(tu). *bigarren persona semea diritzen dena* (142).
- DIZTARGUI. Dizdira. *eguzquiaren diztarguiyac uquizendute sua* (557).
- EGUN. Ehun. *Larrainzarren dire egun guizon eta egun guizon oyetan arquizendirela zutano mengano* (147).
- ERAN. Edan. *yatean eta eratean* (30); *edatean* (35); *eratean* (38).
- ERCHI. *meresiduten pena expadegu pagatzen erchizenzaigu ceruco bidea* (829).
- ERDECHI. *eta zuc M.S. erdechizaidazu* (641).
- EROTASUN. *erotasune dalaco* (69).
- ERRAN. *cer itz erraten yugun* (59).

- ERRAZQUI. *bescenaz errazqui garaituco gaituzte* (2).
- ERREZU. *Otoitza. da Credoa errezu erraza* (174); *explicacean errezuarien bierra, errezuaren propiedadeac galdeyeac* (538).
- ERRUSITA(TU). *Erresucita(tu). J.C.requin errusitatuco* (442); *denoc diyo erresucitatu beardegula* (445).
- ETORRIBEHAR. *auda etorri bear izugarriya* (490).
- ETSEI. *Etsai. aterazeac arquizenguera etseibatequin* (12); *ainbesteco esei* (55).
- Ezin contal. *ezin contal urte* (671).
- FIÑA. *Fin. Ja.da gure principiyua ta fiña.* (487).
- FRUTESA. *baño eztutenac balio frutesabat* (470).
- GALDE(TU). *galdeyendu doctriñac* (250).
- GALDEPEN. *galdepen edo pregunta* (536).
- GARAI(TU). *du poderioa garaizeco mundu guzia* (90); *bescenaz errazqui garaituco gaituzte etsaiac* (2).
- GARBIYERA. *alaber Ja. izenic espiritu garbiyera* (557).
- GARRAZ. *Garratz. aín pena garrazera* (719).
- GUAR(TU). *Ohar(tu). icusteagatic edo guarceagatic* (88).
- GUAZE. *Ohe. guazera joatean benizpen* (45); *balaqui batec guacian ill bearduala* (351).
- GUEIZQUERI. *gueizqueric eguindioten nere lagun projimuari* (656).
- GUEIZQUITASUN. *Gaitz. ez izeteco gure corpuzarendaco gueizquitasunic* (33).
- GUEIZTOQUERI. *gueiztoqueribat eguiteco estalzenbada* (109).
- GUEIZTOSAMAR. *itz gueiztosamarrac errateco* (110).
- GUERA(TU). *ez orrengatic guerazen dire libraturic gurasuac* (126).  
—guerna. —garrena. *viguerna da demoniua* (79); *yruguerna da gure araguaia* (104).
- HERI. *uciric heriyac eriotzarequin munduco lagun, senide...* (491).
- IMAGIÑA. *imagiñetan consideratudizque bi gauza* (620); *ez besce imagina-bacuen aurrean* (636).
- INDER. *beardu corpuzac bere inderra* (34).
- IRIQUIN. *infernuia da puzu bat suarena iriquiten dagoana* (683).
- IRRI. *deabrubat irris* (15).
- IYEN. *Igo. icusi cenduan ilcen edo ceruetara iyeten?* (250).
- IZEL. *Itzal. icustearequin bacarric Samuelen izela* (499).
- IZIYU. *Izi(tu), Ikara(tu). iziyu zan* (55); *J.C. iziyubazen eriotza elduzala...*  
*ezta gauza extrañazecoa gue izizea* (358).
- LADRON. *cumpliyuzen ladronari erranciyon izac* (379).
- LAGUN PROJIMOA. *gueizqueric eguindioten nere lagun projimuari* (657).
- LECU(TU). *Aldendu. lecuzenciyun guruce santuaren videx* (25).
- LEOY. *opatu zuten illic leoya* (30).
- LIZUÑ. *Ytz zacarrac, luzuñac aiyu ta erran yuten* (659).
- MANTENU. *mantenuac ez izeteco gure corpuzarendaco gueizquitasunatic* (35).
- MATERIALE. *lenic materiale ceñequin eguitendan* (621).
- MENGANO. *eta egun guizon-oyetan arquizen direla zutano mengano* (147).
- MERESI. *meresi izanduten pena: becatuec meresi duen pena pagazen da* (514).
- MINZE(TU). *baita ere minzezeco guizonarequin* (89).

- NAPARRIE. Nafarrerria. Nafarreri beltza, viruela. Nafarreri gorria, sarampión (Urdiáin). *bescebatec balaqui tifusequin, naparriequin*, etc. (354).
- NEYAGO Nahiago. *neyago luqueteque* (551).
- NORLA. Nola. *eta aranorla pensatuzun* (401); *ara norla bat libratua izateco zorra pagacetic* (432).
- OBREREN. Hoberen. *obra gucietan obrerenac conseguizeco* (530).
- OPA(TU). Aurkitu. *urbillen egunean opatuzuten illic leoya* (30); *ni opacen naubenac villatuco du betico vicitza* (344).
- OQUEN. Hauen. *baña oquen viotza dago urruti* (279); *cumplitudeitela oquen deseyoa* (478); *ez encontrateco Santuoyequin eta consejuac oquen-gandic errecibizeco* (547).
- OREI(TU). *oreituco lizeque* (352); *oreitucobaguineque* (539); *Eva erori zen becatuan ceren ezen oreizen orduan vere ondoan zegoala Ja.* (540).
- OYEN. Oihan. *atozte, erraindute, oyenac nere gañera quentzera vicitza* (687).
- PERILLAN. Arrisku. *perillan aundiyan dagoala condenaceco* (309).
- REGULARQUI. *ez guinunque regularqui egun onic pasatuco* (350).
- REPRENSIONA. *sentitzen zuela reprehensiona ematea* (503).
- SATISFACIONA. *eman cion satisfacciona ugari* (359).
- SEÑO. Seno, sabel. *yeustean Abrahamen señora* (373); *eta onen gañean Abrahamen señora* (508).
- SIÑESQUI. *maitazen zun edo ez siñesqui* (83).
- UNCI. Ontzi. *urbediquetue unciue ondoan* (14).
- URRUI(TU). *aimbesteraño urruiquituzan gutaz non etorrizen arren seme baccarra mundura* (704).
- URRUTI. *icusizun, an goiti, urruti, Abraham* (510).
- Usu arrazoña. *badaqui ya cer eguitendun eta badauque ya usu arrazoña* (110).
- Viaugu. Behar dugu. *orduan viaugu guzioc erresucitatu* (430).
- VIGUERNA. Bigarrena. *viguerna da demoniua* (79); *yruguerna da gure araguia* (104); *biguerna consideratu deique papera orrec representazenduena* (622).
- YAI. *mezara etorri naicen yayetan* (651).
- YAIQUI. Jeiki. *Yaiquizenganean* (3).
- YAN. *yatean eta eratean* (33).
- Yaqueta. *erraindu yaqueta gende gucioc empeñatzen dire* (477).
- YAYO. Jaio. *ecen yayo Españan... ezen yayo Europan* (242).
- YIQUI. Txiki. *batez ere memoria yiquiya zutenac* (174); *ezteique aundiya ta yiquiyu* (179).
- YUSÍ. *ezyugulaco yosten gure pasione desordenatuac* (73).
- YRUÑA. *Yruñan eztela denbora asco* (76).
- ZABORRA. *quenzen yucie zaborrac* (280).
- ZAGUMEN(TU). Ezagutza. *zagumentuco adiña* (107).
- ZURE. Madera. *dela papera, dela zure, dela arriya* (622).
- ZUTANO. *eta egun guizon-oyetan arquizen direla zutano mengano* (147).

